

LEINTZ-GATZAGA / Ludoteka eta liburutegia egunero egongo dira zabalik gaurtik aurrera

Gaur, astelehena, zabalduko dute ludoteka 3 eta 6 urte bitarteko umeendako. 17:00etatik 18:00etara egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera.

Ez da erraza izan Gurel guraso elkarteko kideentzat hezitzailea aurkitzea ludotekarako, batez ere egunean ordubeterako bakarrik nahi zutelako, baina han eta hemen ate joka jardun ostean, gaur, astelehena, hasiko dute ikasturtea.

Horrekin batera, liburutegia indartzea erabaki du Gurel elkarteak. Hori horrela, liburutegiaren ordutegia zabaldu egin dute: astelehenetik egubakoitzera egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00etara, eta ludotekaz arduratzen den hezitzaile bera arduratuko da liburutegiaz. Ludoteka zein liburutegia Garro jauregian daude.